

## Jean-Rene Etxegarai, Baionako auzapeza

# “Buru belarri segituko dut bake prozesuaren alde”

**JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

**B**este sei urtez izanen da Baionako auzapez Jean-Rene Etxegarai. Botoen %53,81 bildurik, lehen atera da bozketen bigarren itzulian. Mezu bateratzailea eraman izanarekin lotu du garaipena. Ikustekoa orain Euskal Hirigune Elkargoko presidentearen aulkia atxikitzen lehia eutsiko dion ala ez. Uztailaren 17an izanen dute bozketa elkargoko hautetsiek.

### **Hauteskundeak irabazi dituzu. Nola baloratzen duzu garaipena?**

Poztasun handiz. Emaitza argia da, joera politikoz guztietako baionarrek erakutsi didate konfiantza; sei urtez Baionan eta Euskal Herrian egin lanari dagokionez, babesa argia da. Hauteskunde gogorrik izan dira, osasun krisia bizitu dugulako lehen itzultik goiti. Pasa diren hiru-lau hilabeteak horretara bideratu ditut eta ez batere bigarren itzulira. Azken asteetan bai, kanpaina bizia izan da, baina uste dut argi gelditu dela bi zerrenden arteko ikuspegi ezberdintasuna, hiri honi eta gure lurraldeari dagokionez.

### **2014ean Etxeto baino 26 boz gehiago lortu zenituen bakarrik.**

#### **Aldi honetan milaz gora. Nola aztertzen duzu bilakaera hau?**

26 bozekin irabazteak xume bilakarazten zaitu, baina milatik gora bozen aldearekin irabazteak ez nau harroago bilakatzen eta berdin xume segitzen dut. Hiri honen aniztasun historiko, kultural, erlijiosoa eta soziologikoa ezagututa, argi da ezer ez dela posible bateratzaile izan gabe.

### **BBE Baiona Berde eta Elkarkidea taldean, baita abertzaleen artean ere, izan da eztabaida gogorra bigarren itzulian Etxetorekin batzeari buruz.**

#### **Nola ikusi duzu kanpotik?**

Errespetu handia diet boz-emailei eta noski, Baiona Berde eta Elkarkidea-ko kideei. BBEk bigarren itzulian ez aurkezteko hautua egiten zuela jakitean



DANI BLANCO

pentasatu nuen galduko genuela mundu abertzalearen ordezkaritza bat, hautetsi eraikitzailea eta jarraikia izandako Jean Claude Iriartek ederki segurtatu duena. Erabakia harturik, bi hautagaien arteko parez pareko bat izan da eta nire ustez ez da ezkerria eta eskuinaren arteko lehia izan, baizik eta Alderdi Sozialista eta Alderdi Komunistaren eta beste guztien artekoa.

### **Sei urteko ardura duzu berriro.**

#### **Zein dira zure lehentasunak?**

Politika publikoei buruzko begirada berri bat ekarri nahi dut. Osasun krisi horrek gauzak kokatu ditu oinarritzko lekuan eta Baionaren eta Ipar Euskal Herriaren geroak ez ditut COVID-19aren aurretik bezala ikusten. Antolatu beharko gara, sekulako krisi ekonomiko eta soziala pairatuko dugulako. Egoera sozial eta ekonomiko hauek dituzte politika publikoak bideratuko. Elkartasunaren izpirituak gidatu beharko gaitu.

### **Mikel Barrios kartzelaraturik, Jakes Esnali baldintzapeko askatasuna behin eta berriz ukaturik... egoera latza da.**

Bihar (ekainaren 29a) sartuko dute kar-

tzelara Mikel Barrios eta Mont de Marsanen izango naiz, sustengatzeko eta egoera salatzeko. Buru belarri eta tema gogorarekin segituko dut bake prozesuaren alde. Aurreratu gara. Bi urrats aurrera, beste bat atzera, prozesu oso konplexua da bake prozesua eta apaltasun handiz aritu behar dugu horretan ere. Frantziako Gobernuak geldirik dago, aurrera pausoak egin ditu baina gaur egun egoera blokeaturik dago. Mikel Barriosen kartzelaratzek zinez goibeltzen nau eta iruditzen zait bake prozesuan benetan gibelatzen ari garela. Hori ozenki diot eta Frantziako Gobernuari ere bideratzen diot mezua.

### **Bigarren itzulia aitzin ez omen zenekien Euskal Hirigune Elkargorako presidentetzarako aurkeztu ala ez. Hauteskundeak bururaturik, argitu zaizu?**

Ez dakit oraindik. Hiriko emaitzak jakin berri ditut eta une honetan baionarrei begira naiz. Euskal Hirigune Elkargoari dagokionez, bihar ikusiko dut, Ipar Euskal Herriko hautetsiekin partekatu beharko dut gogoeta. Dena dela, eragile izaten segituko dut buru belarri, presidente izan ala ez. ●